

KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEKO ARAUDIA

Ahozko komunikazioak Kongresuaren ezinbesteko osagai dira, eta tailer teoriko hauetakoren batean sartzekoak izan behar dute:

1. Tailerra: “Haur obesitatearen prebentzioa, eta jarduera fisikoarekin eta kirolarekin duen lotura”.
2. Tailerra: “Pertsona ezinduak gizarteratzea jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez”.
3. Tailerra: “Jarduera fisikoa pertsona zaharren bizi-kalitatea ontzeko bide”.
4. Tailerra: “Herritarren ohiturak aldatzeko moduak: herritar eta erkidego aktiboagoak nola sortu”.

Tailer bakoitzean gehienez ere ahozko zortzi komunikazio izango dira; lan originalak eta argitaragabeak beharko dute izan (ikerketak, esperientziak, berrikuntza proiektuak edo dokumentu berrikuspenak). Autore batek komunikazio bat aurkeztu ahalko du gehienez, eta gaztelaniaz aurkeztu beharko da. Komunikatzaileak 10 minutu izango ditu aurkezpena egiteko, eta ondoren bere komunikazioaren gaineko eztabaidan parte hartu ahalko du.

Komunikazioen bat hautatu zaion partaideak % 50eko beherapena edukiko du Kongresurako izena emateko kuotan, eta komunikazio laburpenak CD batean aurkeztuko dira.

1.- KOMUNIKAZIOEN HAUTAKETA

Batzorde Zientifikoaren ardura izango da komunikazioak hautatzea, eta ondoko irizpideak erabiliko ditu:

- a) Kalitatea eta koherentzia.
- b) Gaiaren egokitasuna.
- c) Ekarpen berritzailea.
- d) Aurkezpen baldintzak betetzea eta formatua.

Ildo horretan, eta komunikazioak hautatze aldera, orri bateko laburpena bidali beharko da. Laburpena formatu digitalean aurkeztu behar da, honela: Windowserako Microsoft Word, 12ko Times New Roman letra, 2,5eko marjinak alde guztietan, eta lerroartean 1,5eko tarteak; 250 hitz edukiko ditu gehienez.

Laburpenarekin batera, datu hauek bidaliko ditu egileak:

- Komunikazioaren izenburua.
- Komunikazioa zein tailerretakoa den.
- Egilearen izen-abizenak.
- Lanbidea eta lantokia.
- Helbidea, telefono finkoa, telefono mugikorra eta posta elektronikoa.
- Aurkezpena egiteko behar diren baliabideak.

Laburpena eta gainerako datuak posta elektronikoz bidali beharko dira Kongresuaren Idazkaritzara (kirolarte@gipuzkoa.net).

Kongresuaren Idazkaritzan laburpenak aurkezteko epea 2006ko abuztuaren 14an amaituko da.

Batzorde Zientifikoak laburpen guztiak aztertu eta bere erabakiaren berri posta elektronikoz jakinaraziko die egileei, irailaren 15a baino lehen. **Behin betiko onartua izateko, Kongresurako izena eman beharko da irailaren 25a baino lehen.**

Batzorde Zientifikoak ahalmena izango du ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten dokumentuei ezezkoa emateko eta egoki iruditzen zaizkion lanak hautatzeko.

2.- ZIURTAGIRIAK

Komunikazioa hautatu zaien egileei emango zaie ziurtagiria, baldin eta Kongresurako izena eman eta kuota ordaindu badute.